

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida



www.zizurkil.com

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

urtarrila 2009 | 66. zenbakia | NEGUA



Ikastaroak Haurrak


MARRAZKETEA: Astelehenetan 18'00etatik 19'00etara. Prezioa: 20 euro.
EUSKAL DANTZA: Asteazkenetan 17'15etik 18'15era. Prezioa: 45 euro.
DANTZA MODERNOA: Ostiraletan 19'00etatik 20'00etara. Prezioa: 45 euro.

Helduak

ESKULANAK : Asteartetan 18'00etatik 20'00etara. Prezioa: 50 euro.
PATCHWORK: Asteazkenetan 18'00etatik 20'00etara. Prezioa: 50 euro.

Iriarte Etxea

ESKULANAK: Ostiraletan 15'00etatik 17'00etara. Prezioa: 50 euro.
Izen emateak Aurrera Plazako Udal Bulegoetan (tel. 943-692495)



KZ gunea

Tutoritzak urtarrilaren 7 eta 21ean 16'00etatik 18'00etara.

Euskara

Abenduaren 19an eman ziren sariak:

*Teodoro
Hernandorena*

VII. IPUIN LEHIAKETA

A MAILA: Leire Perurena "Ilargi magikoa eta izurde txikia", 8 urte-Zizurkil eta Michel Dos Santos Dos Anjos "Amona ausarta", 6 urte-Zizurkil.
B MAILA: Ander Zubelzu "Xaguak ikastolan", 10 urte-Andoain eta June Gurrutxaga "Ez dut ezertarako balio", 9 urte-Zizurkil.
C MAILA: Leire Lopetegi "Ez hondoratu", 13 urte-Andoain eta Unai Calvo "Gizon arriskutsua", 12 urte-Zizurkil. Aipamena izan dute Aiora Seguiolaren "Baso galduan", 12 urte-Villabona eta Maddi Suarezzen "Kalinkako artista", 12 urte-Andoain.
D MAILA: Jon Egues "Kriminal arriskutsua" 15 urte-Andoain eta Iker Lizeaga "Ames batean", 14 urte-Andoain. Aipamena jaso dute Ane Egibarren

Zorionak guztiei! Aurtengoan 287 ipuin aurkeztu dira. Esker bereziak Zizurkilgo Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotza Ikastolari, aurkezturiko lanengatik eta baita Andoain eta Villabonako ikastetxeei ere.

Atxulondoko azken olagizona

Leire Zubeldia zizurkildarrak idatzi eta Juan Luis Landak ilustratutako ipuina salgai dago Udaletxe, Udal Bulego eta liburutegian 5 euroren truke.
Zatoz zure alearen bila!

Zure izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi?

Orain erraza eta azkarra da. Aurrera Plazako Udal Bulegoetan hurrengo agiriak aurkeztu behar dira:

- Errola agiria (bertan egingo dizugu).
- Jaiotza agiri literala. Norberaren jaiotza agiria dagoen erregistroan ematen dute. Bake epaitegi bidez ere eska daiteke.
- N.A.N.aren fotokopia.
- Familia liburua (ezkondua egon edo seme-alabarik izanez gero).

Informazio gehiago: Euskara Zerbitzuan (943-692495 edo bulegoa@zizurkil.com).



Bestelakoak

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA: IRTEERETAN LAGUNTZAILE JOATEKO PERTSONA AUKERATZEKO DEIALDIA:

Urtean zehar antolatzen dituen egun osoko 5 irteeretan laguntzaile eta gidari lanak egiteko pertsona bat behar da. Hautagaiek Alkiza, Aduna, Larraul edo Zizurkilen errolatuta egon beharko dute; 18 urte beteak izan; euskara ondo menperatu beharko dute eta pertsona helduekiko gertutasuna izan. Esperientzia eta langabetu edo ikaslea izatea baloratuko da. Epea: urtarrilaren 20a. Informazio gehiagorako 943-693930 telefonora deitu (Itsaso).

